Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abenduaren 23a, astelehena — 246 — Lunes, a 23 de diciembre de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEZOKO UDALA

*Iragarkia*

2023ko irailaren 19an, Alkatetzaren D23/1074 Dekretua onartu zen. Horren bidez, Kontratazio Mahai Iraunkorra eta haren osaera izendatu ziren alkatearen eskumenekoak diren espedienteetarako (Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak diren espedienteak barne), Sektore Publikoari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren esparruan. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko irailaren 27an, 187 zenbakiarekin.

Dekretu horretan zuzenketa bat sartu zen lehen eta bigarren titularren ordezkoen izendapenaren idazketan. Horregatik, 2023ko azaroaren 27an, aurreko zuzenketa egiten duen D23/1391 dekretua onartu zen, eta 2023ko abenduaren 18an argitaratu zen 241 zenbakiarekin.

Udaleko plantillan izandako aldaketen ondorioz, Kontratazio Mahai Iraunkorraren osaera berritu behar da alkatearen eskumenekoak diren espedienteetan (Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak diren espedienteak barne).

Horregatik, 2024ko abenduaren 3an egindako bilkuran, Gobernu Batzarrak Kontratazio Iraunkorreko Mahaia berritzea erabaki zuen, alkatearen eskumenekoak diren espedienteetan (Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak diren espedienteak barne). Hona hemen hartutako erabakia:

*Bat.* Alkatearen eskumenekoak diren espedienteetarako (bai eta Tokiko Gobernu Batzarrean delegatuta dauden espedienteetan), Kontratazio Mahai Iraunkorraren osaera berritzeko proposamena:

4. berria:

— Titularra: Leire Peñalba Rebolledo, Administrazio Orokorreko Teknikaria.

Mahaiko idazkari ordezko berria:

— Amaia Galdós Kazabón, administraria.

*Bi.* Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri ematea Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

*Hiru.* Sektore Publikoko Kontratuen Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.4 artikuluan zehaztutako gutxieneko epearen kalterik gabe, osaera berria erabaki hau hartu ondoren hasten diren kontratazio espedienteetan izango du eragina.

Lezo, 2024ko abenduaren 4a.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea. (9071)

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Anuncio*

Con fecha 19 de septiembre de 2023 se aprobó el Decreto de Alcaldía D23/1074 por el que se designaba la Mesa Permanente de Contratación y su composición para los expedientes que son competencia del Alcalde (incluidos aquellos expedientes cuya competencia esté delegada en la Junta de Gobierno Local) en el marco de lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, del Sector Público. El acuerdo se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 27 de septiembre de 2023 con el número 187.

En dicho decreto se introdujo una corrección en la redacción del nombramiento de las personas suplentes del primer y del segundo titular. Por ello, el 27 de noviembre de 2023 se aprobó el decreto D23/1391 que lleva a cabo la corrección anterior y se publicó el día 18 de diciembre de 2023 con el número 241.

Consecuencia de cambios producidos en el personal del ayuntamiento se precisa la renovación de la composición de la Mesa de Contratación Permanente en expedientes que sean competencia del Alcalde (incluidos aquellos expedientes cuya competencia esté delegada en la Junta de Gobierno Local).

Por ello, en sesión celebrada el día 3 de diciembre de 2024, la Junta de Gobierno adoptó la renovación de la Mesa de Contratación Permanente en expedientes que sean competencia que sean competencia del Alcalde (incluidos aquellos expedientes cuya competencia esté delegada en la Junta de Gobierno Local). He aquí el acuerdo adoptado:

*Primero.* Proponer la renovación de la mesa de contratación permanente para los expedientes cuya competencia corresponde al Alcalde (incluidos aquellos expedientes cuya competencia esté delegada en la Junta de Gobierno Local) de la siguiente manera:

Nuevo 4:

— Titular: Leire Peñalba Rebolledo, técnico de Administración General.

Nueva suplente de Secretaría de la Mesa:

— Amaia Galdós Kazabon, administrativa.

*Segundo.* Se dará cuenta de esta nueva composición de la Mesa de Contratación en el Perfil del Contratante y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Tercero.* Sin perjuicio del plazo mínimo establecido en el artículo 21.4 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley de Contratos del Sector Público, la nueva composición será efectiva para los expedientes de contratación que se inician con posterioridad a este acuerdo.

Lezo, a 4 de diciembre de 2024.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria. (9071)

EK\CV GAO-I-2024-09071